

Izen-abizena:..... Data:..... Gela eta zenbakia:.....

1. Ariketa: Irakurri hurrengo erreportajea eta beheko taulan idatzi falta den erreportajearen atala.

KONTZERTU SARREREN MERKATU EZKUTUA

2019/07/15

Julen Fingueras esa zuen bezala “Kontzertu sarrerren merkatuak ustez baino irabazi handiagoak ematen ditu. Birsalmentaren aitzakia aprobetxatuz, negozio-kate honetan parte hartzen duten guztiek irabaziak biderkatu dituzte azken urteotan, musika zaleok geroz eta prezio altuagoak jasaten ditugun bitartean.”



Hala esaten dute, eta egia da: inork ez du diskorik erosten gaur egun. Musika ogibide duen edozein artistak badaki grabazioetan irabazi ohi zen dirua orain kontzertuetan dagoela. Irabazi ohi zena baino askoz ere diru gehiago. Azken bi hamarkadetan musika grabatuaren –CD-ak bereziki– irabaziak %50 murriztu diren bitartean, kontzertuenak seikoiztu egin dira.

Urtero, kontzertu txiki zein handitan, dirutza gastatzen dugu sarreratan. Eta, ohikoa den moduan, txanponen doinua entzun dute delitugile argienek. Hala, azkenengo urteetan, eta teknologiaren aurrerapenaz baliatuz, beren negozioa zabaltzeko aukera ikusi dute birsaltzaileek, ‘reventa’ deiturikoek.

Bigarren mailako merkatua

Egun, ‘bigarren mailako merkatua’ deitzen zaio, nahiz eta, funtsean, betidaniko birsalmenta den, hau da, sarrerak jatorrizko prezioan erosi eta bere bikoitz edo hirukoitzean saltzea. Baditu birsalmenta honek, halere, betiko amarruak berritzen dituzten elementu berri batzuk.

Gure gurasoen garaietan ez bezala non birsalmenta pertsona talde batek egiten zuen gaur egun, norbaitek programatu duen boot izeneko makinek egiten dute lan lasterra. Zuk edo nik sarrera pare bat erosterako, munduko edozein lekutik kontrolaturiko programa hauek ehunka erosteko astia izan dute.

Askotan errepikatu den istorio berbera da: Bruce Springsteen, Beyoncé, U2, Lady Gaga... Boot hauei esker, sarrerak minutu batzuetan agortu eta, hori gertatu bezain laster, ehunka aurki daitezke bigarren-mailako-merkatu horretan. Songkick konpainiaren ustez, kopuru osoaren %20, gutxi gora behera. Zaleen aldetik, tristura, haserrea, etsipena.

Egoera honen aurrean, sarrera salmenta konpainiak eta interesa jarri duten politikariak irtenbide bila ari dira. AEBetan, adibidez, legea aldatzeari ekin diote, eta orain isunak inoiz baino gogorragoak izango direla adierazi dute. Tamalez, birsalmentaren mafia uste baino korapilatsuagoa da.

Jarraitzaileok, biktima bakarrak

Jasotako datu ezberdinen arabera, sarreren “benetako” salmenta data, ofiziala baino nahiko lehenago hasten da. Alde batetik, kontzertuaren sustatzaileak, eragile ezberdinek eta artistak berak sarrera kopuru osoaren portzentaia bat ematen dute opari VIP delakoei: lagunei, politikariei edota eserleku hoberenak okupatzen dituen beste jende inportanteari. Horietako askok, kontzertuan interes nahikorik ez eta laster jartzen dute beren sarrera salgai.

Era berean, sarreren portzentaia bat irratsaio, eta promozio ezberdinentzat gordetzen da. Esate baterako, Euskadi Irratiak sarrera pare bat zozketatzen duen bakoitzean, salmentan atera ez diren sarrerez ari gara. Gainera, kontuan izan ditzagun artisten fanclub ofizialek jaso eta aldeztu aurretik saltzen dituzten sarrerak: guztira, eta batez beste, sarreren %38.

Hori ez da dena. Ticketmaster-en zuzendari izandako Nathan Hubbard-ek dioenez, Seatwave edota Viagogo bezalako webgunetan aurki daitezkeen sarrerak ez dira soilik aurretik azaldutako kasuetakoak. Eskaintza eta eskariaren lege lizunari jarraituz, kontzertu sustatzaileek badakite sarrerak oraindik ere garestiago sal ditzaketela.

Zaleei ehun eurotik gorako sarrerak saltzeak beren irudi publikoari kalte egingo diolakoan, sustatzaile batzuen azpijokoa hau da: prezio ofizialak igo beharrean, sarreren kopuru handi bat beren kabuz saltzen dute birsalmartan. Sorpresa handirik ez, beraz, Ticketmaster bezalako korporazio batek berea den bigarren mailako salmenta webgune batera bidaltzen zaituenean.

Artistak, reventak, sustatzaileak. Guztien artean, eta batez beste, sarreren %50 baino gehiago saldu edo oparitu dute bezero arruntek tiket bat eskuratzeko aukera izan aurretik. Kasu aipagarrienetan (Katy Perry eta holakoak), portzentaia %80tik gorakoa da.

Zer egin?

Aurretik aipatutako lege aldaketaz gain, AEBetan hasi dira ekimen ezberdinak probatzen. Soilik dirua irabaztea helburu dutenen aldetik, sarreren prezioa mugikorra izan dadin proposatzera iritsi da. Hegazkin txartelekin bezalaxe, kontzertuen prezioa gora eta behera mugituko litzateke ikuskizunaren data gerturatu ahala. Era berdintsuan, Live Nation korporazioaren zuzendaria den Michael Rapinok argi azaldu du: birsalmartarekin bukatzeko, sarrerek bere prezio altuenera jo behar dute. The Rolling Stones ikusteko 200, 300 edota 500 euro gastatzeko prest? Hori izango da, orduan, taldea ikusteko ordainduko duzun prezioa.

Birsalmartaren kontra egin dutenen artisten artean, proposamen etikoagoak azaldu dira. Adibidez, Broadway-en bost hilabetez gauzatuko duen ikuskizunerako, Bruce Springsteenek Verified Fan izeneko sistema bat jarri du lanean Ticketmaster-en laguntzaz. Sistema honen bitartez, “benetako” jarraitzaile direnen artean loteria bat egin eta sarrerak erosteko aukera ematen duen kode bat zozkatzen da. Oraingoz, beste artista askok bide berbera jarraitu dute, eta Springsteen beraren iritziz, sistemak arrakasta handia izan du, birsalmarta ia erabat desagerraraziz.

Bere aldetik, Taylor Swift abeslariak benetako jarraitzaile nor den jakiteko bide propioa egin du: bere diskoa erosten dutenek, ‘atsegin dut’ gehien ematen dutenek edota hashtag jakin bat zabaltzen dutenek, abeslariak eskainiko duen kontzerturako sarrerak lortzeko lehentasuna izango dute.

Musikaren munduaz kanpo, Louis C.K. komikoak sarrerak bere webgune pertsonaletik saltzea erabaki du, ikusleriarekin banakako tratu gertuago eta justuago bat lortzeko asmoz. Baina halako kasuetan, sarrera eskuratzeko erabili den kreditu-txartela erakustera behartzen dute eroslea, horrek dakarren denbora (ilara amaiezinak) eta baliabide (langileak, segurtasun neurriak) gastuarekin.

Etorkizunean gailenduko den sistema zein izango den oraindik ez dakigu, baina joera batzuk ziurtasunez baieztatu ditzakegu dagoeneko: zuzeneko musikaren negozioa zabaltzeko egingo dela, kontzertuak eta festivalak ugarituko direla eta, era batera edo bestera, musika jarraitzaileok prezioen igoera ordaintzen jarraituko dugula.

Zein elementua falta da?

2. Ariketa: Hurrengo izenburua eta sarrerarekin irakurrita, autatu hurrengo azpi-izenburu zerrendatik bi:

ANANA, FRUTA OSASUNTSUENA?

Zihurrenik guztiok noizbaiten jan duzuela anana edo ananaren zuku bat edan duzuela, baina erreportaje honetan ez dira agertuko ananari buruzko errezeta batzuk, erreportaje honetan ikusiko dugu anana fruta osasuntsuena den ala ez.

AZPI-IZENBURU ZERRENDAA	
• Zenbat errezeta egin ahal dira honekin? (1) • Zergatik kolore horia dauka? (2) • Zein mantenugaiak ditu eta bakoitzeko kantitatea zein da? (3) • Zergatik pentsatzen da tomatea pentsatzen da barazki bat dela fruta bat denean? (4) • Kalteren bat sortu ahal du? (5) • Zergatik dauka hosto hoiek? (6)	

Azpi-izenburuaren zenbakia

Azpi-izenburuaren zenbakia

3. Ariketa: Hurrengo sei testuetatik bi auketatu behar dira elkarrizketa baten hasiera eta bukaera esateko, hau da gaia: Zer pentsatzen duzu diskotekei buruz? Beste informazioa: Pertsona honekin ez duzu inoiz hitz egin

Egun on, galdetu nahi nuen zein da zure ideia diskotekei buruz.	Eskerrik asko zure laguntzagaitik, agur!	Zer pentsatzen duzu diskotekei buruz?
Erantzun oso txarrak eman dituzu eta zure erreportajea zaborrara joango da, agur!	Kaixo, telebistarako erreportaje bat egin nahi dugu diskotekei buruz, baimena ematen diguzu elkarrizketa grabatzeko	(joaten da ezer esan gabe)

Hasteko

Bukatzeko

4. Ariketa: Zergatik fruta eta barazki gehienak hostoren bat daukate edo izan duelako marka daukate? Hau da azpi-izenburu bat eta honi buruzko sei informazio kutxetatik bi aukeratu behar dira.

Frutak ez direlako magiaz egiten, hau da, leku batetik atera behar dira eta hau landareetatik dira.	Frutekin zuku oso onak egin ahal dira baina ez da bakarrik fruta ere gehitu behar diozu azukrea.	Hostoa kendu ahal duzu eta hau ez egongo da.
Adibidez, melokotoia ile txikiak ditu, ordea, sagarra ez.	Koloreak aldatu ahal dira egin diren lekuagaitik.	Barazkiak landare edo zuhaitzetatik ateratzen direlako.

1. Informazioa

2. Informazioa

5. Ariketa: Lotu behar dituzu ezkerreko kontzeptu soziolinguistikoak haien definizioarekin.

Hizkuntza	Haurrak 3 urte bete arte etxean jasotzen duen hizkuntzari deitzen zaio ama-hizkuntza.
Hizkuntza komunitatea	Hizkuntza bat erabiltzen den esparru edo gunea, hala nola etxea, lagunartea, eskola...
Erabileraren eremua	Hizkuntza bera erabiltzen duten gizakiek osatutako taldeak.
Hizkuntza maioritarioa	Komunitate bateko kideen arteko komunikazioa ahalbidetzen duen tresna edo bitartekoa da.
Hizkuntza txikia	Hizkuntza batek bete behar dituen funtzioak (bereziki, goi-mailakoak) betetzen ez dituen hizkuntza.
Hizkuntza minorizatua	Herri edo estatu baten mugen barnean biztanle gutxik erabiltzen duten hizkuntza.
Hizkuntza ordezkapena	Herri edo estatu batean biztanle gehienek erabiltzen duten hizkuntza.
Ama hizkuntza	Hizkuntza baten lekua beste batek hartzen duenean gertatzen den egoera.

6. Ariketa: Hiru arau egongo dira eta hauetatik hautatu behar duzu arauak betetzen dituen izen-sintagmak:

1. IS NOR (izena+adjetiboa+determinatzaile mugatu singularra)

- ☐ Opari bat eman didate
- ☐ Testu luzea irakurri dut
- ☐ Etxe gorriak ikusi ditugu
- ☐ Anana jan dugu
- ☐ Erlojuak erosi ditugu familia osorako

2. IS NOR (izena+determinatzaile mugatu plurala) + **IS NORK** (izena)

- ☐ Marcosek Laurari opariak eman dio
- ☐ Bilbon dendetan egon naiz
- ☐ Ama zigortu nau
- ☐ Pablo gutunak idaztea gustoko du
- ☐ Mugikorrak oparitu dute ikastolan

3. IS NOR (izenlaguna+izena+izenondoa+determinatzaile)

- ☐ Ardi beltz bat ikusi dut
- ☐ Zure ardiei esnea atera diet
- ☐ Zure jostailu txiki bat hartu nuen
- ☐ Nire familia etxe erraldoi bat erosi du
- ☐ Nire mugikor zuria zurea baino hobeagoa da

7. Ariketa: Bi arau honekin bost izen-sintagma sortu behar dituzu.

1. IS NOR (izena+adjetiboa+determinatzaile mugatu singularra) + **IS NOR** (izena+determinatzaile mugatu plurala) + **IS NORI** (izena+determinatzaile mugatu singularra)

1. IS NOR (izena+adjetiboa+determinatzaile mugatu plurala) + **IS NOR** (izena+determinatzaile mugatu singularra) + **IS NORI** (izena+determinatzaile mugatu singularra) + **IS NON** (izena+adjetiboa+determinatzaile mugatu singularra) + **IS NORA** (izena+determinatzailea)

DBH 2 3. unit. EB ADIERAZLEAK

HELBURU DIDAKTIKOAK	EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK	BALORAZIOA				
		4	3	2	1	0
1. Erreportajeen ereduak aztertuz haien komunikazio-asmoa inferitu eta egituraren osagaiak bereizi eta ezagutza hori norbere testuaren planifikazioan erabili.	Eskainitako erreportajearen egiturako elementuak identifikatu ditut.					
	Erreportajearen komunikazio-asmoa, izenburua eta sarrera emanik, azpi-izenburu egokiak hautatu ditut.					
2. Informazioa eskuratzea helburu duen aurrez planifikatutako elkarrizketan, aurrez aurreko egoeraren ezaugarrien arabera galdera egokiak egin eta interakziorako estrategiak aplikatu.	Elkarrizketari hasiera eta amaiera emateko testu egokia hautatu dut.					
3. Testuko ideien arteko erlazio semantikoa inferitu eta erlazioak adierazteko hizkuntza-baliabideak zein progresio tematikoa bideratzen dutenak nork bere ekoizpenean erabili.	Azpi-izenburuen arabera eskainitako informazioetatik egokiak ez direnak identifikatzen ditut.					
4. Errealitate soziolinguistikoaren berri ematen duten testuak aztertuz, hizkuntzen bizitza eta garapenaren eragileei buruzko informazioa identifikatu eta adierazi.	Hizkuntzen bizitza eta garapenaren eragileak eta kontzeptu soziolinguistikoak eta haiei buruzko informazioa ematen duten testuak erlazionatzen ditu					
5. Emandako enuntziatuetan izen-sintagmak eta haien osagaiak identifikatu eta osagaiak deklinatuz esaldi zuzenak idatzi.	Eskatutako baldintzak betetzen dituzten izen-sintagmak identifikatzen ditut.					
	Eskatutako baldintzak betetzen dituzten izen-sintagmak zuzen deklinatzen ditut eta aditzak zuzen					